

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### UNTZA-APREGINDANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Zenbait aprobetxamenduren tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2019ko ordainagiriak borondatezko epean ordaintzea**

Egin delarik Untzaga-Apregindanako Kontzejuko zenbait aprobetxamenduren 2019ko tasa ordaindu behar dutenen errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Espedientea Untzaga-Apregindanako Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan azertu ahal izango da.

Zergadun errolda jendaurrean jarrita, osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorri Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau orokorrak 9. artikulua-ren 3. apartatua xedatutakoarekin; dena dela, interesdunek berraztertzeko errekurtsua aurkez dezakete esleitu zaizkien kuoten aurka, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsuak eta erreklamazioak administrazio batzarreko lehen-dakariari jarriko zaizkio, adierazitako epeen barruan.

Tasa ordaintzeko borondatezko epea 2019ko uztailaren 10ean hasi eta uztailaren 30ean bukatuko da, egun bi horiek barne direla.

Tasaren ordainketa helbideratuta dutenei 2019ko uztailaren 30ean kobratuko zaie.

Untzaga-Apregindanako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Ordaintzeko borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargua aplikatuta, bat etorri Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, 28. artikuluan xedatutakoarekin.

Untza-Apregindana, 2019ko ekainaren 30a

*Errejidore-lehendakaria*  
**JOSÉ CARLOS MARÍN CORRES**